

ENEKO GARCIA.ANE LINDANE.ANER PERITZ

Euskaldun anizkun—Transgresioa euskaraz.

Publiko berriak euskararen aliatu

2024-12-16



PLAZA

Etorkizunaz pentsatzeko, orainaz pentsatu behar da. Mundu aldakor batek errealitate konplexua dakar berez, eta bertatik bertara ikus dezakegu hori; egunerokoak eskaintzen digu, urrun joan gabe. Errealitate konplexua, anitza... hautsia. Aztertze eta eragiteko zaila, baina interesgarria. Eneko Garciak, Ane Lindanek eta Aner Peritzek, Euskaldunentzako Jabetze Eskolaren abenduko saioan, transgresioaz jardun zuten, hausturaz eta eraikitzeaz, eta hizkuntza gutxituen testuinguruetan dituen ondorioez.

ZAZPI JAUZI

1. Transgreditzeko eta arauak hausteko, sarri, ez dago ezer egin beharrik: garenak izanda bakarrik egin ohi dugu. Artea gorputz batetik egiten dela onartzen dugun unetik, gorputz horren arabera transgresio-maila eransten diogu sormenari. Beraz, **badira gorputzak transgresioan "errolatuta" daudenak.**

2. Hala ere, **transgresioa ezin da modu esentzialistan ulertu**, edo printzipio modura hartu. Aldakorra izan daiteke: orain ehun urte apurtzailea zena gaur egun agian ez da izango; eta lurralde-eremuaren arabera ere apurtzaile izateko era ezberdinak egon daitezke. Indarrean zein arau sozial dagoen hartu behar da kontuan beti. Horrekin lotuta, transgresioak ez du zertan beti onuragarria izan. Gatazka ekar dezake, eta horri, normalean, beldur handia izaten diogu.

3. **Hemen, gune politizatuak** dira sormenerako espazio egokiak eskaintzen dituztenak. Baldintzarik edo araurik jartzen ez duten espazioek (adibidez, gaztetxeek) ematen dute bidea transgresiorako. Ondoren, beste zirkuitu ofizialago batean "balidatu" daiteke hori, edo ez. Probatzeko espazioak dira, eta bertara doan publikoak ere badaki hori, publiko konprometitua delako.

4. Sortzen ari garenean, **transgresioa lantresna modura ere erabili dezakegu**. Balio dezake, adibidez, publikoak bestela ikusiko ez lituzkeen gauzak ikusarazteko. Baina nola egiten da hori?

Euskarazko sormenaren testuinguruan beharra sentitu dugu betidanik produktu berri eta apurtzaileak sortzeko. Agian estrategia aldatu behar dugu: **produktu berriak sortu beharrean, sormen-lan hori gauzatuko duen jende berria behar dugu.**

5. Azken finean, aurreko puntuarekin lotuta, **euskara gehiegitan erabiltzen dugu subjektu modura, eta gutxiegitan tresna modura**. Helburu izatetik bitarteko izatera pasata eraginkorragoa izan daiteke.

6. Ez dugu geuk bakarrik hartzen euskara subjektu modura: **gaur egungo sistema berez dago euskararen aurka. Ondorioz, euskaraz zerbait sortzea beti da transgresioa.**

7. Noski, bizi garen lekuan bizi gara, eta ditugun arau sozialak ditugu. **Euskaraz sortutakoa ispilu sozialaren aurrean jarri behar dugu, eta ikuspegi kritikoa izan**, beste edozein sormen-lanetan moduan. Egiten dugun guztia berrikusi behar dugu konstanteki.